16 GIPUZKOA

Plaiaundi

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

2,1 km

30 min

Hurbileko herria:
Irun

Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo

BAI

5 m

38 m

0 m

38 m

Ingurumen-garrantzia

Plaiaundi izan zen Txingudi berreskuratzeko lehen saioa, XX. lehen herenean giza-jarduerak oso degradaturik baitzegoen. Gaur egun, hogeita lau hektarea horien berreskuratzeak estuarioari lotutako hainbat habitat izatea ekarri du: eremu gaziko landaredia, zingira landareetarako lokatzezko zelaiak, marearteko eremuak eta ibaiei lotutako ibar basoak. Horien guztien bat egiteak fauna anitza biltzen du: kopetazuria *(Fulica atra)*, basahatea *(Anas platyrhynchos)*, txilinporta *(Tachybaptus ruficollis)*, txirritxoa *(Charadrius spp.)*, uroiloa *(Gallinula chloropus)* eta anfibio, intsektu eta arrain ugari. Arrainetan aipatzekoak da arrain hiruarantza *(Gasterosteus aculeatus)*, bertan eta Jaizubian baino bizi ez dena Gipuzkoa osoan. Horrek guztiak egiten du Plaiaundi eremu berezia, bereziki arlo ornitologikoan, paduran migrazio mugimendu anitz suertatzen baitira.

PLAIAUNDI

Plaiaundi





Non dagoen eta nola heldu

Plaiaundi Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdeko muturrean dago, Donostialdea eskualdeko Irun udalerrian, Txingudi paduran bertan.
Hara heltzeko, AP-8a hartuko dugu, eta ondoren GI-636a Plaiaundirantz.
Ibilgailua aparkalekuan utziko dugu Txingudi Ekoetxera oinez joateko.
Txingudi Ekoetxea interpretazio zentrotik hasiko gara eremuaren inguruko informazioa jasotzera: Hogeita lau hektarea Txingudi paduran, 1998an berreskuratua.
Bertatik, Irungo ingurumarien ibilbide zirkularra gozatzea dugu.
Txingudi ekoetxeko eskuineko pistatik hasi eta hirurogeita hamabost bat metro eginda ezkerretara biratu eta berriro ezkerretara San Lorenzo urmael ainguratzeko pista hartuko dugu. Zortziehun bat metro eginda, eskuinetara hartuko dugu pasabide bat zeharkatuta behatokiraino.
Handik Txingudiko ur-hegazti espezie ugari ikus ditzakegu.
Pistara itzuliko gara Txoritegi zonaldeko urmael ainguratzeko, eta futbol-zelaia eskuinetara utziko dugu.
Ezkerretara utziko dugu urmael geza, eta aurreraxeago txirritxo txikia bizi deneko irla artifiziala ikusiko dugu.
Ibilbidean zehar hainbat informazio panel eta behatoki izango ditugu hezeguneko hegazti ugariak ikusteko.
Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina ekialdeko Atlantikoko migrazio bidean bertan dagoen eremua denez, udazkena eta udaberria izango dira espezie gehien gozatzeko sasoiak.

Deskargatu ibilbidea:

KML GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:

Wikiloc

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Plaiaundi

Ibilbide autogidatua
PLAIAUNDI AURKITU
Itinerario autoguiado
DESCUBRE PLAIAUNDI

Plaiaundi